

## Errumaniari buruzko jardunaldiak hasiko dira bihar Algortan

Bihar hasita eta hilaren 30era arte Errumaniari buruzko jardunaldiak izango dira Algortan. Ekimen hori Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzuaren 'Liburutegiak, topaleku' programa barnean dago eta honako hauek ditu helburu nagusiak: hainbat udalerritan presentzia handia duten immigrante kolektiboen kultura zabaltzea eta azken horiei zenbait euskal udalerrietako liburutegi zerbitzuak ezagutzera ematea, Getxoko Kultur Etxeak zabaldu duenez. Aurreko urteetan Bolibia, Filipinak, Kolonbia eta Magreb izan ziren jardunaldien ardatza eta aurten kultura errumaniarra izango da erabateko protagonista. Getxoko udal liburutegien eskutik hainbat jarduera izango dira jardunaldietan. Hiru astetan zehar, erakusketak, hitzaldiak, liburu aurkezpena, tailerra eta errumaniar jaia egingo dira honako elkarte eta erakunde hauekin elkarlanean: Errumaniako Kultura Institutua, Biltzen Integraziorako eta Kulturen arteko Bizikidetzarako Euskal zerbitzua, Utopian eta Udal Immigrazio Arloa. Argazkia: cc-by Dennis Jarvis.

Jardunaldiak bihar hilak 14, ostegunean, abiatuko dira. 'Descubriendo la literatura rumana clásica y contemporánea. Por qué leer autores y autoras rumanas' hitzaldia (Algortako Kultur Etxean, 19:00etan) izango da, Luminita Marcuren eskutik, Errumaniako Kultura Institutuko zuzendariondokoa, hain zuzen ere. Bihar ere 'Komiki Errumaniarra' (Algortako Kultur Etxea) erakusketa hasiko da. Horretan hiru garaiko errumaniar artista nagusien ekoizpena erakutsiko da: 'urrezko aroa' delakoa (1891-1947), gerraostea eta gerra hotza (1948-1989) eta egungo garaia (1990tik aurrera). Erakusketa azaroaren 30era arte egingo da zabalik.

Astehenean, hilak 18, 'Joan-etorriko bidaien artean, Errumaniako Rromen bizitzak' argazki erakusketa abiatuko da (Algortako Kultur Etxean, azaroaren 30era arte). Bertan Adriana M. Villalón antropologoak Rrom delako etniako emakumeen bizitza erakusten duten argazkiak bildu ditu. Erakusketaren inaugurazioa dela eta, azaroaren 18an egileak berak bisita gidatua egingo du 19:00etan eta, jarraian, hitzaldi bat emango du.

Azaroaren 21ean Fudurako Ostalaritza eskolak Errumaniako sukaldaritza tailerra hartuko du 19:00etan hasita. Horretan parte hartu nahi duten guztiek hilaren 4tik izena eman behar dute Algortako Kultur Liburutegian (matrikulak bost euro balio du). Hurrengo asteko asteazkenean, azaroaren 27an, Loredana Vancea idazleak Algortako Kultur Etxean aurkeztuko du 'Una parte de mí' liburua. Lan autobiografiko horretan Errumaniar bizi zela haurtzaroan eta nerabezaroan izan zuen esperientzia latzak islatu ditu.

### Jai errumaniarra

Agur esango dute jardunaldiek hilaren 30ean, larunbatean, izango den jai errumaniarraren eskutik. Algortako Kultur Etxean eta Liburutegian izango da 18:00etatik 21:00etara eta bertan Kaleda talde folklorikoaren saioa, Errumaniako jantzi tradizionalen desfilea, Pazkoko arrautzak margotzeko haurrentzako tailerra eta errumaniar produktuen dastaketa izango dira.